

Laudio, 2023ko uztailaren 27an

## **Laudiok Sanrokeetarako programa inklusiboa eta plurala aurkeztu du, kaleko ekitaldi ugarirekin**

*Pregoa abuztuaren 14an, astelehenean, botako dute tokiko eskualdeko zentroek, eta txupinazoa Peña Historikoek piztuko dute hilaren 15ean*

Bi aste baino ez dira falta jai-giroak Laudioko kaleak hartzeko eta Sanrokeak 2023 jaietan murgiltzeko, abuztuaren 15etik 17ra eta 23tik 27ra bitartean ospatuko direnak. Zortzi egunetan zehar, audioarrek zein bisitariak egitarau libre, doakoa eta gustu eta adin guztietarako bizi ahal izango dute. Aurtengo programak "udalerrian gozamina bermatzea baitu helburu", azpimarratu du Sonia Respaldiza Jaietako zinegotziak.

Aurtengo pregoia abuztuaren 14an izango da, astelehena, eta tokiko eskualde-zentroek zabalduko dute: Andaluziako Etxeak eta Gaztela eta Leongo, Extremadurako eta Galiziako zentroek. "50 urte daramatzate komunitate horietatik iritsitako bizilagunak hartzen eta haien kultura, ohiturak eta tradizioak mundu osora hurbiltzen. Gure herrian egindako lan altruistagatik egindako omenaldia da", adierazi du zinegotziak.

Txupina berriz, hurrengo egunean piztuko dute Peña Historikoek; garai batean izan ziren kuadrillak biltzen dituen kolektiboa urte haietako giroa eta ilusioa berreskuratzeko.

## **GUSTU ETA ADIN GUZTIETARAKO ERRITMOAK**

Musika, ezinbestekoa edozein jai-programazioan, herriko kaleak gustu eta adin guztietarako erritmoekin beteko ditu abuztuaren 15etik 17ra eta 23tik 27ra. Hala, musika-emanaldien artean, hauek nabarmentzen dira: El Consorcio eta King África (abuztuak 15), Gatibu (abuztuak 16), En Tol Sarmiento, Los 5 bilbainos eta La Basu (abuztuak 17), Mojinos Escocíos eta Golden Apple Quartet (abuztuak 23), mariachis Los Tenampas eta Ptazeta (abuztuak 24), Sorotan Bele San Roque Musika Taldearekin eta Rosario Flores (abuztuak 25), La Misión Orkestra eta Hika Dantza Taldea (abuztuak 26), eta Puro Relajo (abuztuak 27).

Bertsoek bere lekua izango dute ere 24an, Beatriz Elgezabal artistak zuzenduko duen clown bertso-saioarekin. Musika proposamen guztiak doakoak izango dira eta herriko hiru agertokitan izango dira: Herriko Plazan, Alberto Aceron eta Hiru Gurutze aparkalekuan.

## **TXIKI ETA NAGUSIENTZAKO EKINTZAK**

Aurten jaiak abuztuaren 15etik 17ra eta 23tik 27ra ospatuko dira. Bertan, txikiek eta nagusiek haur parkeez, fandango eta arin-arin lehiaketa klasikoez, musika onenaz eta kale antzerkiaz gozatu ahal izango dute, baita Don Terencio eta Doña Tomasa erraldoiekin dantzatu ere. Herrian oso errotuta dauden buruhandiak ere jai guztietan arituko dira, baita bigantxak ere.

Izan ere, txikienentzat abuztuaren 16an Go! azen karaokea iritsiko da telesaileko aktoreekin, Malen Azpirotzekin (Iraia), Joanes Etxevesterekin (Ibai) eta Julen Castillorekin (Koldo), euren abesti ezagunenak interpretatuz. Eta ez hori bakarrik, Xaibor ere Laudion izango da abuztuaren 26an bere musika eta erritmo berriak hurrei aurkezteko.

Jai-giroa herriko txistu, trikitixa, dultzainero eta abarrekin ziurtatuta egongo da, haiek baitira "Laudio egiten dutenak", nabarmendu du Respaldizak.

Jarduera herrikoiek ere protagonismo berezia izango dute jaietan. 25ean Baserritarraren Eguna ospatuko da eta hurrengo egunean odolki ospetsuek beren usaina zabalduko dute Laudioko kaleetan zehar. Herri kirolak, espezialitate ezberdinetako lehiaketa gastronomikoak eta txapelketa tradizionalak ere ez dira faltako. Ezta kuadrillek antolatutako ekintzak, gainera aurten zazpi kuadrilla berri gehitu dira.

"Herritar guztiak, baita bisitatzen gaituztenak ere, gure jaiak bizitzera eta gozatzera hurbiltzea espero dugu, gure jaiak inklusiboak, irisgarriak, berdintasunezkoak, parte-hartzaileak eta, batez ere, errespetuzkoak eta toleranteak direlako nabarmentzen baitira", goraipatu du Ainize Gastaka alkateak.

## **LATORROK KARTS LASTERKETA HARTUKO DU**

2023 honetan ere Sanrokeak nobedade garrantzitsuekin datoz, aurten Latorro auzoak, lehen aldiz, kirol ekitaldi berezi bat hartuko baitu: "Laudioko San Roke Open Trofeoa" Karts lasterketa. Abuztuaren 19an egingo den kirol jarduerak Albert Costa, Jaime Alguersuari, Dani Clos, Aleix Alcaraz, Nil Montserrat eta Jon Lainz pilotu laudioarra hurbilduko ditu, besteak beste.

Ekitaldia 16:00etan hasiko da Club Porscheren erakustaldi batekin, eta lasterketa 19:20ean iritsiko da.

## **ROKETXU AMAIERA EMANGO DIE SANROKEEI**

Roketxu ere ekitaldietan izango da berriro ere. Izan ere, eta azken urteetako ohiturari jarraituz, su artean amaiera emango die Laudioko jaietako zortzi egunei. Baina hori bai, 2024ko abuztuan berriro berpizteko promesarekin. Izan ere, aurten Laudioko Udalak Roketxuren molde bat egin du urtez urte haren esentziari eusteko.

## **INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE**

Jaiak edozein motatako indarkeriarik gabeko guneak izan daitezen, Beldur Barik taldeak karpa bat jarriko du Batzalarrin kalean hilaren 15ean, 10:30-13:30 ordutegian, eta 24 eta 26an, 19:00etatik 22:00etara. Udalerriko LGTBI+fobiaren erradiografia lortzeko asmoz, hilaren 23an Ikusgune karpa jarriko da Batzalarrinen. Gunea herritarren eskura egongo da 19:00etatik 22:00etara.